

**EUSKAL GRAMATIKA. LEHEN URRATSAK-IV  
(JUNTAGAILUAK) (EGLU-IV)**

*Miren Azkarate*

Aurkezpen ofizialik egin ez arren, 1994. urteko Durangoko Azokan jarri zen salgai Gramatika batzordearen azken lana: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-IV (Juntagailuak)*. Aurreko liburukiak, lokailuak aztergai zituenak, eta oraingo honek osatzen dute koordinazioari dagokion atala. Eta aurrekoan bezalaxe, oraingoan ere, berrehun eta hogeit hamar orrialdetan zehar, euskal juntagailuez inoiz eman den informaziorik zabal eta aldi berean xehena eskaintzen da. Hona nola banatu den liburua: *juntagailu, menderagailu eta lokailu*-en arteko bereizkuntza argitzen duen lehen kapituluaren ondoren, hiru sail nagusitan bildu dira juntagailuak, sail bakoitzari kapitulu mardula eskainiz: *emendiozkoak, hautakariak eta aurkariak*.

**EUSKAL GRAMATIKA  
LEHEN URRATSAK - IV  
(Juntagailuak)**

**GRAMATIKA BATZORDEA  
EUSKALTZAINDIA  
1994**

Kapitulu bakoitzean, modu bertsuan antolatu da juntagailu-mota bakoitzari buruzko informazioa: forma-kontuak, juntagilu bakoitzaren funtzioa, balioa, juntagaien ezabaketa nola gertatzen den, eta, azkenik, zein den juntagailuaren tokia.

Irakurlea berehala ohartuko da orain arte aipatu ere egin ez diren auziak aztertzen direla juntagailu bakoitzaz, sistematikoki; hala nola, zein kategoriako juntagailuak elkartzen diren, zein perpaus-motatan azaltzen den juntagailua, zein balio edo esanahi hartzen duen... Geure aldetik, eta gaurko hizkuntza estandarrean duen garrantzia kontuan izanik, liburuan sistematikoki aipatzen den alderdi bat azpimarratuko genuke: juntagailu jakin batek izenak ala sintagma osoak elkartzeko joera duen aztertzen duena, alegia. Argiago esanda, zein da jatorrago euskaraz, *irakaslea eta zuzendariaren arteko liskarra* ala *irakaslearen eta zuzendariaren arteko liskarra*? *Aita* edo *amarekin* ala *aitarekin* edo *amarekin*?

Galdera horien eta beste batzuen erantzuna ere aurkituko du hemen irakurleak. Azken batean, hemen aurkituko baitu juntagailu bakoitza non eta nola erabili den azken mendeetan zehar.